

Erakusketa Ibiltaria
Natura 2000 Sarea

DBH

NATURA 2000 JOKOA

**“Bizitzeko tokiak,
pertsonentzako tokiak”
erakusketa ibiltaria.**

2009-2010

NATURA 2000 SAREA



A TALDEA



EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**



1 Zer da biodibertsitatea?

Jarraian ageri diren baieztapenak egia ala gezurra dira?

- Biodibertsitatea, putzu batean agertzen den igel espezie bateko norbanako ezberdinak dira.
- Biodibertsitatea, putzu batean agertzen diren igel espezie ezberdinak dira.
- Biodibertsitatea, udalerrri batean ageri diren putzu ezberdinak dira.
- Biodibertsitatea, udalerrri ezberdinetan ageri diren igel populazioak dira.
- Biodibertsitatea, herrialde ezberdinetan ageri diren putzuak dira.



2 Biodibertsitateari neurria hartzen!

Jarraian agertzen diren ekosistemei so egin, zein da biodibertsitate handiena duena? Lehenago bete ezazu jarraian ageri den taula, marrazkia begiratu.

Espezie	Izakien kopurua										
	Mirotz urdina	Zapelatz arrunta	Kaskabeltz handia	Elorri beltza	Elorri zuria	Basurdea	Albitz-belar	Txantxangorri	Haritza	Garia	Guztira
A-Basoa											
B-Monolaborantza											
C-Landazabal Atlantikoa											


BIZITZEKO TOKIAK, PERTSONENTZAKO TOKIAK



A



B



C


Monolaborantzak eta landazabal Atlantikoak paisaia gizatartuak dira, gizakiaren esku-hartzearen ondorio dira, baina biodibertsitate maila oso ezberdina aurkezten dute, zergatik izan daiteke?

3 Biodibertsitatea ezagutzen!

Zein 3 kontzepturekin erlazionatuko zenuke **biodibertsitatea** terminoa?

1 _____
2 _____
3 _____

Behar duzun informazioa aurkezpeneko bideoan aurkituko duzu.



Eta orain, bideoa ikusi duzula, gauza bera pentsatzen al duzu? Zein kontzepturekin erlazionatuko zenuke biodibertsitatea?

1 _____
2 _____
3 _____


BIZITZEKO TOKIAK, PERTSONENTZAKO TOKIAK

Behar duz un informazioa
4^o Moduluko multimedian
eta paneletan aurkituko
duzu

4 Zer da Natura 2000?

Zer da Natura 2000? Jarraian ageri diren baieztapenetatik esan zeintzuk diren egia:

- Nazio Batuen Ingurumenerako Programak (PNUMA) bultzaturiko planeta mailako proiektu globala da.
- Bere helburua biodibertsitatearen galera geldiaraztea da.
- Ondare historiko-kulturalean garrantzia duten tokien berreskurapen eta kontserbazioa lortu nahi du.
- Soilik ingurumena eta ekologiarekin erlazionatutako proiektua da, gizakia bere barne hartzen ez duena.
- Natura 2000 sarea degradazio maila handiena duten ekosistemen aukeraketa bat da eta bere helburua ekosistema hauen berriztapen eta berreskuratzea lortzea da.
- Gizakiaren eta naturaren arteko elkarbizitza harmoniatsua indartzen du.
- Bere xedea, Europako landaretza, fauna eta ekosistema esanguratsuenen kontserbazioa da.



5 Nola ari da eratzzen Natura 2000 sarea?

Jarraian Natura 2000an aurrera eramango diren ekintza nagusiak ageri dira, kronologikoki ordenatu itzazu eta jar lezaiezu data bat. Etorkizunerako salto handia da...

- Sarea funtzionamenduan dago eta planteatutako helburua betetzea lortu da: biodibertsitatearen berreskuratzea.
Data: _____
- Kontserbatzeko ezagutu. Ikerketa teknikoak eta inbentarioak egin dira gure biodibertsitatea ezagutzeko, zer dugun, non dagoen eta zein kontserbazio egoeran dagoen.
Data: _____
- Habitat zuzentarauaren onarpena.
Data: _____
- Kontserbatzeko kudeatu. Toki bakoitzerako kudeaketa plan espezifikoak zehaztu dira. Plan hauetan, kontserbazioa bermatzeko jarraibide eta arauak ezartzen dira.
Data: _____
- Kontserbatzeko babestu. Beren kontserbazio egoera edo garrantzia ekologikoa kontuan harturik babestea komenigarriak diren ekosistema batzuk aukeratzen dira. Natura 2000 sarea osatzen da.
Data: _____





Ibaiak



Landazabal Atlantikoa




Hezeguneak



Pagadia



Mendiko larreak



Itsas ingurunea

6

NATURA 2000 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Euskal Autonomia Erkidegoan zein ekosistemek osatzen dute Natura 2000 sarea? Erantzuna paneletan aurkituko duzu.

Zergatik uste duzu kontserbatzea garrantzitsua dela?



► Markatu ezazu Euskal Autonomia Erkidegoko mapan non bizi zaren. Natura 2000 sareko zein toki daude zure bizitokitik gertuen? Ordenagailuan begiratu.

► Zer dute interesgarria?

► Ezagutzen al dituzu? Hauetariko baten batetara joaten al zara?

► Zer egiten duzu bertan?

► Zer hobetuko zenuke?

► Nori dagokio hobekuntza hori aurrera eramatea?

► Zu, zertara konprometitzen zara?
